

Mexikon azken hamarkadetan eta bereziki 2006ko urtetik aurrera Estatuak herri mugimenduaren kontra diseinutako estrategia errepresiboaren barruan kokatu behar da Ayotzinapan (Iguala) gertatutakoa. Hain zuzen ere "Normal Rural" eskola bateko ikasleen aurkako eraso, desagerpen eta erailketa Mexikoko Estatua aurrera eramaten ari den Estatu terrorismoaren azken ekintza baino ez da.

Desagerpenak, erasoak, protesten kriminalizazioa, eta erailketek, izua zalbaldu, gobernuaren politika kriminalaren kontrako salaketekin amaitu eta herri mugimenduaren desagerpena dute helburu. Kolonbian hainbat urtetan praktikan jarri den estrategia errepresibo eta kriminala indar guztiarekin aplikatzen ari da orain Mexikoko gobernua.

Informazio gehiago:

"Ni ausencia de Estado, ni hecho aislado: Ayotzinapa es terrorismo de Estado. (Comite Cerezo Mexico)

"Testimonio de un superviviente de la masacre de Ayotzinapa" (bideo)

"Nomales Rurales: una historia de más de 80 años" (Lahaine).

"¿De qué tamaño son las fosas en México, cuántos más caben en ellas?" nazioarteko hainbat pertsonek sinatutako gutuna (Proceso)